

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5260

HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2021eko irailaren 7koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, EAeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeak hautatzeko dena, hezkidetzak, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu globalean, sistematikoan eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektuak egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Mota horretako hutsak antzeman dira honako ebazpen honetan: Ebazpena, 2021eko irailaren 7koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, EAeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeak hautatzeko dena, hezkidetzak, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu globalean, sistematikoan eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektuak egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (199. zk.), 2021eko urriaren 5ean, eta orain zuzendu egingo da.

II. eranskinean, «Ezetsitako eskabideak» izenekoan, 2021/5081 orrialdean (3/3)

Honela dio:

Bizkaia	014530	Resurreccion M de Azkue Sdad. Coop.	3.3 artikulua
Gipuzkoa	012471	CPEIPS Egiluze Hijas de La Cruz Erretereria HLBHIP	3.3 artikulua
Gipuzkoa	012352	Hautzaro Ikastola, S. Coop.	3.3 artikulua

Baina honela esan behar du:

Bizkaia	014530	Resurreccion M de Azkue Sdad. Coop.	12. artikulua
Gipuzkoa	012471	CPEIPS Egiluze Hijas de La Cruz Erretereria HLBHIP	12. artikulua
Gipuzkoa	012352	Hautzaro Ikastola, S. Coop.	12. artikulua